

Marzelino Soroa, Teatro Berriaren aitzindaria (1848-1902)

PATRICIO URQUIZU SARASUA

UNED

Erromantizismoaren ideien zabalkundeak XIX. mendean herri txikien edota oso gutxi ezagutuen baloratze berria dakar eta ondorioz euskal letren pizkunde aroa. Bestetik industrializazioaren bitartez herri-kulturaz at, liburuen kulturara jende multzo haundi berri bati ateak idekitzen zaizkio. Horrela bada, mende honetan irakurketarako ahalmena eta aukera ematen zajo gure kasuan Euskal Herriko hiri nagusietako langile-diari, bai eta herri industrializatutakoei, edo bidean zirenei.

Halaberetsu, hirietako antzokietara joaten hasiko den ikusle multzoa ugaritu egingo da, eta honekin batera eskainiko zaiona ez da izango goi mailako komedia, herria eta herriko pertsonai arruntak kontutan hartzen duen komedia apala baizik. Modu honetan sortuko dira denboraren poderioz eta teatroaren eraginez bertan ematen den gizartearen ispilua dela eta tankera honetako deiturak: *El Madrid de Arniches*¹, *La Cataluña de Espriu*, edota geuk gure aldetik bataia dezakegun *El Donosti de Soroa*. Honen ikuspegi eta lanari helduko diogu hemen.

Beraz, logikoa da Donostia Errege-Erreginen hondartza hauta eta Gipuzkoa bere mainu-etxeekin uda partean nobleen eta burgesiaren kokaleku denez hauek beren libertimendu eta ohiko irri-solasak edukitzea, hots, beren teatroa. Adibidez, badakigu Donostian 1861. urtean *El Capitán Carrillo*², –tituluaren arabera, kapa eta ezpatazko antzerkia litzatekeena–, aurkeztu zela, eta ez zen bakarra izango. Hor daude, esate baterako Praxedes Diego Altunak Soroaren nekrologika idazterakoan aipatzen dituen *El loco de la guardilla*, *Verdugo y sepulturero*, *El Payo de la corte*, *Los pobres de Madrid*...³ Nik ez dut, egia esan,

¹ Pilar Espín, *El teatro por horas en Madrid (1870-1910)*. (Subgéneros que comprende, autores principales y análisis de algunas obras representativas). 2 T. Universidad Complutense, Madrid, 1988.

² Archivo Histórico Nacional. Madrid, n.º 11396.

³ Euskal-Erria. Donostia, 1902.

datu askorik Donostian jokatzeko zen gaztelaniazko antzertiaz, beraz, uste dut beharko litzatekeela garaiko kazetak kontutan harturik ikerketa lan bat hasi, beste lekuetako antzertiaz egin den bezalaxe hori argitzearen.

Garai honetan Marzelino Soroa –Donostiako parte zaharrea jaiotza–, hamahiru urte zituen. Familia karlista batean hazia, antza denez, legeak ikastera Valladolidera bidali zuten eta hemen urte batzuek igaro ondoren, eta karrera bukatu dirudienez, jaioterrira itzultitakoan beste karrera bati eman zion hasiera, hots, idazle, antzerkigile, Gimnasia eta euskara irakaslearenari.

1868az gero –eta oso garrantzitsua izan zen data hau, zeren Iraileko Iraultzaren ondorioz zentsura kendu baitzen eta prentsari askatasun gehiago eman baitzitzaien–, herriaren, edo hobe esan, burgesia txikiaren eta langilearen parte hartze handiago izan zen gizarte ekintzetan, bai teatroan, bai politikan bai eta gizarte kritikan eta satiran.

Badirudi une honetan Marzelino Soroak Peñarekin Gimnasia fundatu zuela, non oholtegitxo bat eraiki zuen, eta non beste donostiar gazte lagun batzuekin (Peña, Alberto, Prol, Arzelus...) libertitzen zen Andia kaleko zirkoa beren jauziak eta ikuskizunak emanez. Ez ziren, ordea, hauek arrisku gabeak, halako batean su-ziri batzuek erre egin baitzuten gure Soroa saltalaria 1871ean.

Halaber, Amadeo erregetzara jaso zutenean, honen kontrako bertso ziridun batzuek argitaratu zituela eta, erbesteko bidea hartu beharrean aurkitu zen. Ez zen, hala guztiz ere, oso urrun joan beharrean aurkitu, lehenik Getarin eta gero Ziburun bertan aurkitu baitzuen babesia. Eta hemen, beste exiliatu zenbaitekin, –denbora pasa edo–, Agorret kaleko *El Trueno* zeritzan areto batean beren festak eta antzezkiak antolatzen zituzten. Noizpehinka zezen-korridarrik ere bai.

Ikuskizun hauetako batean 1876an, Soroaren obratxo bat antzeztu zen, antza denez, arrakasta handiz. *Iriyarena* zuen deitura.

Desterrutik itzultitakoan berriro Donostiako kultur bizitzan murgildurik aurkituko dugu, eta 1878an argitaratu zuen, maiatzaren 12an eta 19an arrakasta handia izan ondoren, *Iriyarena, cuadro de costumbres iruchulas*⁴, bezala bataiatu zuena. Hemen lehen irudian sereno bat agertzen da San Vicenteko eliza inguruan oihukatuz, *las cinco y media y nublado*, gero gazte batzuek euskaraz kantari, *iriyaren zai daudenak*, hau da, soka muturra itxaroten eta bitartean elkarriketatzen eta kantatzen dutenak euskaraz eta gaztelaniaz. Azkenean baserriar emakume bat buruan saski handia daramana sokak tratatuz muturrez aurrera eta ankaraz gora erortzen da lurtean marmitako esnea isuriz, eta arraultzak, azak eta bestelakoak sakabanatuz...

⁴ *Iriyarena, cuadro de costumbres iruchulas, original de OMAR-CELIN-OASOR. Presentado con gran éxito en el Teatro Principal de San Sebastián, las noches del 12 y 19 de mayo de 1878. San Sebastián, Imprenta de Juan Osés, 1878.*

Pertsonaien izenak: Marcial, Arturo, Vishente, Pello... Nabarmentzen da argi eta garbi donostiarren, edo zehatzago izateko, irutxulotarren festarako gogoia, alaitasuna eta umore berezia.

Hurrengo urtean Serafin Baroja⁵ ez zen konformatu koadro edota zarzuelatxo batekin baizik eta *Pudente* izeneko opera estrenatu zuen Teatro Zirkoko aretoan, egiteko honetan lagundu zutelarik Santesteban musikariak, Salaberria eszenografoak eta Altzagak, zuzendari gisa. Arrakasta haundia izan zuen euskal opera honek, non ikus eta entzun zitekeen Rio Tintoko mehatzetan erromatarrak euskaraz kantari.

Lehen antzerkitxoaren arrakastak beste antzeko obretan lan egitera bultzatu zuen Soroa, eta honela *Gabon dostirudia, euscara nastuban eta eguintza bacarran, estreinatu zuen Biltzoki Lenendicoan*⁶, -hots, Parte Zaharreko Teatro Printzipalean-. Jokin Santestebanen oroitzapenari dago eskainia. Honek ere arrakasta handia izan zuen eta ale bana bidalitakoan Federiko Mistrali eta Victor Hugori hauek gutun bana igorri zioten eskerrak eta zorionak emanaz euskal literaturaren pizkunde adierazle xume zen antzerkitxo harengatik.

Obra honek sarreran jada Soroaren beste bi antzerki aipatzen ditu: *Anton Caicu eta Au Ostatuba!*, zeinek adierazten digun ordurako idatziak zituela. Halaber, Horazioren latinezko aipamen bat dakar, non adierazten den hitz neurtuak *baino ipuyac erriari* gozoagoak zaizkion, eta *Atzeguin-garrizco asmariyuac egui-antzecuac izan bear duté*.

Hau da, Soroak poetika bat proposatzen ari zaigu, hitz honek ez balu ospe handiegixkoa, alegia, bere xumetasunean errealismoaren alde agertzen zaigu, eta kontutan eduki behar da honen garaian gaudela. Batzuek kostumbrismoa deritzote honi. Eta ez dira falta bertan, eguberri garaia denez, emakume arrain-saltzaileak eta gaztain-saltzaileak, mutil mordoxka bere *Nashimentu* eta guzti kantu kantari, eta hamabigarren irudian marinel mozkor bat.

Ez da, noski, lezio morala edota ikasgai puntua falta azken aldean, hau da, diru-gosearen aurkako sermoitxoa.

*Anton Caicu, cuadro cómico-agreste en un acto, acomodado al bascuence*⁷, liburuaren atarian esaten den bezala, 1882an hiru antzeztaldi izan zituen bederen. Lehen biak Donostia, urtarrilaren 25ean eta otsailaren 8an. Hirugarrena Tolosan otsailaren 12an.

⁵ Patri Urkizu (ed.), 1988, *Serafin Baroja. Bertsoak, Pudente, Tormesko Lazarotxoa, Kontuak*. Prólogo de Julio Caro Baroja. Txertoa, Donostia.

⁶ *Gabon, dostirudia, euscara nastuban eta eguintza bacarran* iscribatuba Marcelino SOROA LASA JAUNAC Aurqueztatuba olagara aundiyarequin Donostico Biltzoki Lenendicoan Azaroaren 6an 1880.garren urtian eta berriro eguilleac moldatuba. Errial bat. Peña eta Pozo-ren moldizkiyan. Donostian.

⁷ *Anton Caicu, cuadro cómico-agreste en un acto acomodado al bascuence*, por D. Marcelino SOROA LASA, representado por primera vez en el Teatro Principal de San Sebastián, con gran aplauso, el 25 de Enero de 1882. San Sebastián, Osés, 1882.

Koldo Mitxelenak duen antzerki alean Soroaren dedikatoria bat agertzen da, honelaxe dioena: *A su muy apreciable amigo José Manterola y Belderrain, director de «El Estudiante», en recuerdo cariñoso de un ... El autor.* Beraz, honen arabera, badirudi José Manterola, *Euskal-Erria* aldizkariako zuzendaria, noizpait ere izan zuela gure Soroak antzez-zuzendari.

Testuak beste bi dedikatoria dakartza. Bat bere alaba Manuelitarentzat. Antonio Hernández antzerki aktore eta zuzendariari, bestea.

Halaber, liburutxoaren *Aclaratoria* deritzan sarrera ohartxoan dio *aun a trueque de exponerse a las censuras de alguna Academia Vascófila*, egoki eta beharrezko ikusi duela zenbait hitz erabiltzea, *por ajustarse en lo posible al lenguaje más familiar de la generalidad*, alegia, ahalik eta jenderik gehienak konpreni dezan erabili dituela.

Sei dira obra honetako *Eguilleac*, dioen bezala, eta beren izenak behin eta berriro agertuko dira garaiko antzez-emanaldietan. Hauexek dira:

Anton Caicu.....	Ramiro Matas jauna
Cathalin.....	Nemesio Saizar jauna
Escribua.....	Martin Bandres jauna
Nagusiya.....	Norberto Luzuriaga jauna
Alcatia.....	Nemesio Saizar jauna
Aguasilla.....	Francisco Lopez Adan.

Gaia ezaguna da, XV. mendeaz geroztik ezaguna den *La Farce du Maître Pathelin*-en euskarazko moldaera da, gertaera Aralar eta Aizkorri bitartean gertatzen delarik.

Umorea hemen ere ez da eskas eta irria hitz-jokoen gain dago eraikia, Nagusia eta Alkatiaren arteko solas honetan ageri zaigun bezala:

Nagusia: Apelatuko egingo det.

Alkatia: Pelatuko zaitu eskribauak seta orrekin segitu nai badezu.

Hots, kasu honetan *pelatu-apelatu* bikotean dago irria antolatua, eta obra guztia ezjakinak-jakintsuari, honen irakaspenak ongi jarraikiz egiten dion adar-jotzean.

Garbi dago ere pertsonaia bakoitzari dagokion hizkera moldatu zaiola, adibidez, eskribauak maiz erabiliko ditu latinezko esaldiak, hala nola, *Badegu rerum konfitentem...*

Antzerki honekin garbi dago Europako antzerki tradizioaren barne-barnean duela sartu Soroak euskal teatroa.

*Au ostatuba!*⁸ 1884an argitaratu antzerkian modu berdinean jarraikitzen du, hots, kostumbrismoaren bidetik ostatu kaxkar baten gora-beherak aurkeztuz. Auspoan berrargitaratu zen.

⁸ *Au ostatuba!* Jostirudia euskerara moldatuba. Donostia, Peña eta Pozo, 1884.

*Alcate-berriya*⁹ 1885ean moldiztegiratuan, aurrekoak *jostirudia* bazen oraingoa *jostaketa* da ildo beretik. Hauexek dira, hain zuzen, bi hitz sinonimo bezala edo kide darabiltzanak gaztelaniazko *juguete cómico* adierazteko. Hau ere gizon bakarrentzat dago moldatua. Hogeita bost orritxo zituen liburuxka errial batean saltzen zen.

Dedikatoria bere euskarazko ikasle bati dago zuzendua, hau da, D. Angel Lopez y Plaza *bascófilo*-ari. Gaia herri txiki bateko plazan gertatzen da, eta ikusten da herrietako udal-etxeen funtzionamenduari buruzko kritika, *emen egiyaco alcati beti da secretariyua*, dio, baina azkenean gauzak antolatzen dira, zeren lelo xamar izateagatik hautatua izan zen alkateak kartzelan sartuko baitu eskribaua eta barrenean daudenak askatuko.

Obra hau euskararen aldeko kanpaina barruan sar dezakegu, zeren eta Donostiako sekretarioaren hautatzea zela eta, honek euskara jakin behar zuela eskatzen baitzituen Udalarri Eusko-Jostaldietako Elkartekoek, hots, gaztelaniaz *Consistorio de Juegos Florales Euskaros* deituaren partaideak, hauek zirelarik:

Presidente, Rufino Machandiarrena
 Vicepresidente, Manuel Gorostidi
 Tesorero, José M. Beitia
 Secretario perpetuo, Antonio Arzac
 Vicesecretario, Carmelo Echegaray
 Vocales, Victoriano Iraola y Marcelino Soroa¹⁰.

Tamalez ez zuen eskaerak aurrera egin. Ez eta urte batzuek geroago gauza bera eskatu zitzaizenean arbitrioetako zeladoreei.

*Barrenen arra!*¹¹ eta *Urrutiko Inchaurreak...*¹² beste borroka baten barnean koka ditzakegu, alegia, emigrazioaren aurkakoan, edo Euskal Herriaren odoluztearen kontrako mugimendu barnean.

Barrenen arra, abalisketa bezala definitzen du egileak, hau da, tragedia. Urnietako Euskal-festetan 1886ko abuztuko 30ean aurkeztua izan zen. Gizon bakarrentzat idatzi zuen, baina geroago Juan Inazio Uranga errederiarrak gizonetzko eta emakumezkoentzat moldatu zuen.

Urrutiko Inchaurreak, jada 1885ean idatzia zeukan Soroak eta Proberbioetako Liburutik hartutako latinezko esaldi batekin hasten da, hots, *Melius est parum cum timore Domini, quam thesauri magni et insatiabiles....*, alegia,

⁹ *Alcate-Berriya*. Jostaketa euskerara moldatuba gizon bakarrentzat. Donostian, Pozo, 1885.

¹⁰ *Euskal-Erria*, Mayo 1886. Donostia.

¹¹ *Barrenen arra!* Abalisketa egintza bakarran, Marcelino Soroa eta Lasak idatzia. 1886.

¹² *Urrutiko inchaurreak...*, jostirudia bi egintzan Marcelino Sosoak Lasak izkribatua, olagara audiarekin aurkeztatua lenbiziko aldiz Donostiko Biltoki edo Teatro Lenendikoak Abenduaren 26an 1886garren urtean, eta Tolosan ere chalo askorekin. Otzaillaren 2an 1887 garrenian. Tolosan, Eusebio Lopez, 1887.

hobe dela gutxi edukitzea baina fededun izatea tesoro hanitz eta aseezina izatea baino.

José Cola y Goiti Arabako diputatuak idatzia zuen Ameriketako emigrazioaren kontrako liburu bat eta Soroak beraxe Gipuzkoako Aldundiaren aginduz itzuli zuen euskarara titulu honekin, *Euskal naparren joaera edo emigrazioa*¹³. Honen berredizioa prestatu zuen Iñazio Mujikak [1988, Klasikoak 13] bertan ikertzen duelarik Soroaren donostiar hizkera hala nola Larramendiri zor dizkion maileguak. *La Vasconia* garaiko aldizkariak komentatuko zuenez, liburu honek *produjo curiosidad primero, expectación después y óptimos frutos más tarde*.

Jada 1853an euskaraz argitaratua zuen Jean Martin Hiribarrenek (1810-1866) *Montebideoco Berriac*, bertsotan liburu mardul bat, eta Anton Abbadiak ere Urruñan antolatu koplarien guduetan edo nor-gehiagoko jokoetan gaia beraxe hautatu zuen. Luis d'Etcheverry diputatu kontserbadoreak Iparraldean ere salatu zuen odol-huste hau zeren soilik Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako gazteetarik 1832tik 1891erak'oa epean 79.252k hartu zuen Ameriketako bidea, urtean batez beste 1321 gazte zirelarik alde egiten zuenak. Colásen kalkuluetan XIX. mende osoa hartuz, bost mila urtero ateratzen dira.

Hau dela eta, Amerikanoaren irudia arrunta bilakatuko bide zaigu, bai bertsotan, bai antzertian, bai eta eleberrietan.

Soroak antzerkiak ez ezik hitz lauzko solas ugari argitaratu zituen Euskal-Erria aldizkarian 1886an. Hamabi zehatzak izateko eta hauek *azken-itzarekin* eta *itzaurre* batekin berrargitaratu egin ziren Auspoan 1963an¹⁴. Aitzinsolasean esaten zaigun bezala euskal tradizio luze bati heltzen dio liburu honetan, adibidez, Juan Jose Mogelek (*Baserritar nequezaleentzaco escolia*, 1816), Agustín Iturriagak (*Diálogos basco-castellanos...*, 1843) edota Jean Duvoisinek (*Laborantzako liburua...*, 1858) idekitako biderei, zein era berean erdi-aroko eta ernazimenduko (*Vives*, ...) ohiko solas eta eztabaidetan finkatzen den.

Soroa hiritarra izanagatik, izadierekiko maitasun handia agertzen du eta baserritar munduaren ezagutza zuzena. Hor daude ematen dituen txorien eta sagar mota ezberdinen hainbat eta hainbat izen. Horrexegatik berberagatik kritikatzan ditu ere baserritarra, besteak beste, sekular gauzak garbi eta zehatz ez esateagatik. Eta elkarrizketak atseginagoak egitearren tarteta-marteka kontakizunak eta hitz-jokoak sartzen ditu.

Urrutiko Intxaurrak, Durangoko Euskal festetan saritua izan zen 1886an, eta *José María Ampuero Durangoko Jaialdi Euzkarazkuen aurrenden jaunari* dedikaturik dago.

¹³ Marzelino Soroa, 1885, *Euskal Naparren Joaera edo Emigrazioa*. Jose Cola eta Goiti jaunak erderaz izkribatua eta euskarara itzulia. Donostiyan. Berredizioa, Iñaxio Mujikak, Klasikoak 13, Bilbo, Labayru, 1988.

¹⁴ *Baratzan*. Auspoa 31. Donostia, 1963.

*Abek itxillubak!*¹⁵ Eta *Gorgonioren estuasunak*¹⁶ Soroak bi liburuki zituen lan eder batean argitaratu zituen, hau da, bertsoz, artikulua ezberdinez, ipuinez, marrazkiz eta bestelako «koxkeriez» betetakoa, alegia, *Azak eta naste*¹⁷ deituan.

Azak eta naste liburu pollit horrek biltzen du argi eta garbi esateko Marzelinoren jenioa, bai euskaraz bai eta gaztelaniaz, artikulugile, bertsogile, ipuinlari eta antzerkigile gisara.

Abek istilubak! gizon bakarrentzat moldatuandago. Honeu antzezkizunean parte hartu zuten Jose Artola, Felipe Casal, Juan Ignazio Uranga eta Jose M. Arrietak. Probintziko mainu leku batean kokatzen da, Toribio Alzagari eskeinita dago, eta argi dago *commedia dell'arte* tradizio luzearen ildotik dohala, eta nahaste-borraste horretan, Goldoniren *Bi nagusien zerbitzaria*-ri zerbeitxo zor diola.

Orain KM liburutegian makinaz jota dagoen ale batean, gizonezkoentzat moldaturik zen lana emakumezkoentzat antolaturik dago, eta gipuzkerazko adizkera batzuek hala nola, *dek* forma markatua *duzu* bezala daude transkribatuak.

Gorgonioren estuasunak, zarzuela moldaera gizon bakarrentzat eta egintza batian bezala aurkezten zuena, 1888ko abenduaren 26an jokatu zen Juan Guimonen musikarekin. Antzezleak ohi bezala Jose Artola, Armando Larzabal, Norberto Luzuriaga eta Ignazio Iribarren gertatu ziren, eta apuntadorea, *bestietan bezala*, Toribio Alzaga.

Iruditegiak ostatu bateko jan-gela bat aurkezten zuen, eta hasieratik bukaerara kantuz betea dago, oso ezagun den lehena hauxe delarik:

*Bazkaldurikan bapo,
Guazemak plazara,
An egingo diagu
Gogotik algara.*

*Bañan ¿zein naiz ni?*¹⁸ Beste antzerkitxoa, edo jostirudi-moldaera gizon bakarrentzat Marzelinok idatzia zeukan 1897-rako, baina ez zen argitaratu hamar urte geroago arte. *Gertaera Arano-Aldean* kokatzen da eta gaia maiorazkoaren gainekoa da, eta saltsa-maltsa mordo baten ondoren, eta usteak erdia ustela duela ikusitakoan dena konpontzen da.

*Ezer ez ta festa*¹⁹ da dakigunez bere azken antzerkitxoa euskaraz, 1899an idatzia eta geroago Toribio Alzagak berriro moldaturik Izarra antzerki bilduman

¹⁵ *Abek istilubak!*, in *Azak eta Naste*, ..., Baroja, Donostia, T. I, 1894, 153-191.

¹⁶ *Gorgonioren estuasunak*, in *Azak eta Naste*..., Baroja, Donostia, T. II, 1895, 170-193.

¹⁷ *Azak eta naste* ó Berzas y versos. Colección bilingüe de artículos, poesías, cuentos y «coshqueries», con dibujos alegóricos, y una obra dramática eúskara inédita arreglada para hombres solos. Baroja, Donostia, 1894-1895.

¹⁸ *Bañan ¿zein naiz ni?* Jostirudi-moldaera gizon bakarrentzat. Bi egintzan, Marzelino Soroa Lasa jaunak izkribatua. Donostia, Baroja, 1907.

¹⁹ T. Alzaga, *Ezer ez ta festa*. Marzelino Soroa'k idatzitako jostirudiaren Antolapen berria. Donostia, Martín, Mena..., 1922.

15.aren ale bezala plazaratua 1922an. Dena den, Euzko iztundeko eskuzkribuaren arabera, Alzagaren antolapen berri hau jada 1918an bukatua zen²⁰.

Kontuak eta gora-beherak zapatagin baten inguruan daude moldatuak. Batixtak eta Xoluerdik idekitzen dute lehen agerraldia kantatzen dutelarik:

BAT. *Festarik bihar bada bego Donostiya...*

XOL. *Bai, bai-bai*

BAT. *Betikua du fama, ondo mereziya...*

XOL. *Bai, bai.*

Eta horrela umore guztiz onean igarotzen du antzerkiak zapia jaisten den arte, azken elkarrizketa hau bukatutakoan:

XOL. (*Batixta'ri*) Aizak, i: *¿bañan zer gertatu da emen?*

BAT. *¿Emen? Ezer ez, ta festa.*

Errepaso bat emanez obra guzti hauei ohar gaitzke bai euskaraz bai eta gaztelaniaz idatzi zituela, azken hauen artean *La Concha*²¹, baina beste biak *La Bella Easo* (1886-II-16an antzeztua) eta *Un empeño singular* (1885-XII-18an antzeztua) ez zirela, dakidala, argitaratu, soilik aipatuak daude baina ez dira ageri Jon Bilbaoren bibliografian ere.

Argitaratzeko zirela baina ez ditut aurkitu ere euskarazko *Lapurrak*, *Lapurrak!*, *Aushe da eguna* eta *Premiñ Icazkiña*. Eta *Barrenen arra*, Juan Ignazio Urangaren moldaeran eta makinaz jotako ale batean ediren dut soilik. Halaber, nonbait aipatuak aurkitu ditudan *Beti oquer* (1885) eta *Aizeac ecarri eta aizeac eraman* (1885) tituluen aztarnarik ez dut inon topatu.

Ez da gutxi, halere, Soroaren uzta, zein XIX. mendeko euskal teatroaren aitzindari izan zen Bizkaiari hogeituro urteko aurrerapena hartuz.

Mereziko luke noizpait bere obra osoaren argitaratzeak, hor zehar sakabanaturik utzi zituen hainbat poema *El Eco de San Sebastián* aldizkarian edota *Euskal Erria*-n, edo honen ordeztuaz gutxienez *Azak eta naste berrargitaratzea*, baina besterik ezean duguntxo honekin konformatu beharko. Eta besterik gabe *Bañan ¿zein naiz ni?* Antzerkiko Joxe Antoniok bezala bukatuko dut, *Jaunak, eskarrikasko ta gaizki esanak barkatu.*

Patri Urkizu

Madrid, 2002ko maiatzaren 22an.

²⁰ Koldo Mitxelena Kultur unea. Ms. 091 Ant. Doc. 53.

²¹ *La Concha, excursión veraniega en un baño y dos olas*. Letra de Marcelino Soroa Lasa. Música de ***. Una peseta. San Sebastián. V. Iraola, 1894.

Eranskina

1878-1900 EPEKO EUSKAL ANTZERKIEN KRONOLOGIA

[a = antzeztua; e= editatua; i = idatzia; ai = aipamena]

Urtea	Egilea	Obra	Musikagilea
1878	Soroa, M.	<i>Iriyarena</i> (e)	
1879	Baroja, S.	<i>Pudente</i> (e)	Santesteban
1880	Soroa, M.	<i>Gabon</i> (e)	
1881	Calderón/Iza, L.	<i>El alcalde de Zalamea</i>	
	« «	<i>La vida es sueño</i>	
1882	Soroa, M.	<i>Anton Caicu</i> (e)	
	Baroja, S.	<i>Hirni ama-alabac</i> (e)	
	Soroa, M.	<i>Au ostatuba!</i> (e)	
	Soroa, M.	<i>Abec ishtillubac!</i> (i)	
	Iraola, B.	<i>Bi itxubac</i> (e)	
	Iraola, B.	<i>Ardita beti ardit</i> (e)	
	Etxeberri, J.	<i>Arroltze ohoina</i> (a)	
1885	Soroa, M.	<i>Alkate berriya</i>	
	Soroa, M.	<i>Premiñ icazkiña</i> (ai)	
	Soroa, M.	<i>Lapurrak, Lapurrak!</i> (ai)	
	Soroa, M.	[<i>Un empeño singular</i> (ai)]	
	Baroja, S.	<i>Luchi</i> (e)	
1886	Soroa, M.	<i>Barrenen arra</i> (e)	
	Soroa, M.	[<i>La Bella Easo</i> (ai)]	
	Iraola, B.	<i>Petra xardinsaltzallia</i> (ai)	Sarriegi
	Harispe, P.	<i>Karmela</i> (e)	
1887	Soroa, M.	<i>Urrutico inchaurren</i> (e)	
1888	Iraola, B.	<i>Pasayan</i> (ai)	
	Alzaga, T.	<i>Aterako gera</i> (e)	
1889	-	-	
1890	XX	<i>Gonzalve edo ostatu bete</i> (e)	
	Iraola, B.	<i>Xordo</i> (e)	
1891	Iraola, B.	<i>Leokadia</i> (ai)	Luzuriaga
1892	Iraola, B.	<i>Txomin Donostiyan</i> (ai)	
	Alzaga, T.	<i>San Tomaseko feriya</i> (e)	
1893	-	-	
1894	Iraola, B.	<i>Onenzaro gaba</i> (ai)	
	Soroa, M.	<i>Gorgonioren estuasunak</i> (e)	
	Soroa, M.	<i>Abec ishtillubac!</i> (e)	
	Soroa, M.	[<i>La concha. Excursión ...</i> (e)]	
1895	Azkue, R.M.	<i>Vizcaytik Bizkaita</i> (e)	
1896	Uranga, J.I.	<i>Aritzaren zumo gozoa</i> (e)	
	Antia, M.	<i>San Luis</i> (e)	
1897	Soroa, M.	<i>Bañan zein naiz ni</i> (e)	
	Azkue, M.	<i>Eguzkia nora</i> (e)	
	Mokoroa, B.	<i>Damuba...Garaiz</i> (e)	
1898	Azkue, R. M.	<i>Pasa de Chimbos</i> (e)	
	Azkue, R. M.	<i>Sasi-Eskola</i> (e)	
	Artola, J.	<i>Legorreko arrantzalia</i> (e)	
1899	Soroa, M.	<i>Ezer ez ta festa</i> (e)	
	Alzaga, T.	<i>Txanton Piperrri</i>	Zapirain
	Gorostidi, E.	<i>Amets gozoa</i>	

Urtea	Egilea	Obra	Musikagilea
1900	Ortuzar, R.	<i>Todos erribatekos</i>	
	Oiparena	<i>Txardin berriak</i>	
	Gorostidi, E.	<i>Amoriyoo eta interesa</i>	

Orotara: 15 Antzerkigile. 12 gipuzkoar, bizkaitar 2, eta lapurtar 1. 48 obra: 39 antzerki, 4 opera, 3 gaztelaniaz, 2 itzulpen. Hogeita hiru urte hauetan batez besteko bi obra urtean. Donostiako Eskolakoak: Marzelino Soroa, Serafin Baroja, Toribio Alzaga, Biktoriano Iraola, Pepe Artola, Manuel Antia, Juan Ignacio Uranga... berrargitaratzea eta aztertzea mereziko luketenak...